

2018KO MARTXOAREN 19AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- BERDINTASUN PLANAREN LUZAPENA ONARTZEA.

2.- GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUAREKIN, MENDEKASUN EGOEREK ERAGINDAKO BEHARRIZANEI AURREA HARTU ETA ERANTZUTEKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO HITZARMENA ETA ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FIANANTZATZEKO HITZARMENA.

3.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAN EGOKITZAPENA BIDERATZEA.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- BERDINTASUN PLANAREN LUZAPENA ONARTZEA.

Zegamako Udalak, 2014-2017 ekitaldirako, "Zegamako emakume eta gizonen berdintasunerako I Plana" garatu eta onartu zuen.

Adierazitako planaren eguneraketa bideratzen den bitartean, Alkateak adierazten du, komenigarria dela epealdi honetan indarrean egon den planaren luzapena bideratzea.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako lau zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- Zegamako emakume eta gizonen berdintasunerako I Planaren luzapena onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUAREKIN, MENDE TASUN EGOEREK ERAGINDAKO BEHARRIZANEI AURREA HARTU ETA ERANTZUTEKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO HITZARMENA ETA ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FIANANTZATZEKO HITZARMENA.

EUDELetik, Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen artean sinatzea proposatzen den hitzarmenaren zirriborroa aurreratzen da.

Horrenbestez, udal bakoitzak aukeran izango du egoki iruditzen zaizkion Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren hobekuntza guztiak edo batzuk bere gain hartzea, edota ez hartzea. Horren arabera, zerbitzuaren finantziazioa handiagoa edo txikiagoa izango da. Gainera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudian eta/edo prezio publikoaren araudian jasota utzi beharko da, 2018an zerbitzuan hobekuntzak sartu direla egiaztatzeko, aipatutako hitzarmenaren seigarren klausulan jasotako testuari jarraiki.

Bilkurakideak, gaia aztertu behar dela adieraziz, hitzarmenaren onarpena hurrengo bilkura batean bideratzea adosten dute.

3.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAN EGOKITZAPENA BIDERATZEA.

Espedientea ikusirik.

GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean zabaldu eta hobetzeko proiektuan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak Etxezarreta Muñoa sendiari 670,41 m²ko lursail bat desjabetu zion, horretarako jarraitutako desjabetze-espedientearen arabera.

Adierazitako lanak amaitu ondoren, eta Diputatuen Kontseiluak 2007ko martxoaren 6ko bileran adostutakoaren arabera, Zegamako Udalari eskualdatu zitzaion GI-4251 "Olaran baserria (Zegama)" errepidearen 0,000 eta 0,150 k.p.en arteko zatia, alegia, hasieratik Olaran errekarren gaineko pasabidearen ezkerreko estriburainokoa".

Espedientean adierazitakoaren arabera, adierazitako eskualdaketa udal ondasunen inbentarioan jasotzea beharrezkoa egiten da, ondorio horietarako herri bideen 022 fitxa egokituz.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako lau zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- Dagozkion ondorioetarako, udal ondasunen herri bideen 022 fitxa egokitzea, GI-4251 errepidea 0,090 eta 0,160 k.p.en artean zabaldu eta hobetzeko proiektuan jasotako jardueren arabera.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 07/0118 erabakia, urtarrilaren 29koa, Juan Jose Zabaletari, Euskitze Zahar baserriko sailetan txerriak hazteko ukuilu bat eraikitzeo Sabina Arakamak aurkeztutako baimen espedientearen kopia ematea onartuz.
- 08/0118 erabakia, urtarrilaren 29koa, 6324 fakturen erlazioa onartuz, guztira 18.531,98 eurokoa.
- 09/0118 erabakia, urtarrilaren 29koa, 6328 fakturen erlazioa onartuz, guztira 55.465,39 eurokoa.
- 010/0118 erabakia, urtarrilaren 31koa, 2 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 2.574,62 eurokoa.
- 011/0118 erabakia, urtarrilaren 31koa, langileen ordainsarien ordainketa erlazioa onartuz.
- 012/0118 erabakia, urtarrilaren 31koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa erlazioa onartuz.
- 013/0118 erabakia, urtarrilaren 31koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 01/0218 erabakia, otsailaren 2koa, Aizkorri guraso elkarteak inauteri festa antolatzeko egindako eskaera onartuz.
- 02/0218 erabakia, otsailaren 5koa, hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartuz.
- 03/0218 erabakia, otsailaren 7koa, 4. mailako arma-txartela ematea onartuz.
- 04/0218 erabakia, otsailaren 15koa, administrari lanpostuaren deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialera bidaliz.

- 05/0218 erabakia, otsailaren 16koa, 3 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 60.769,59 eurokoa.
- 06/0218 erabakia, otsailaren 16koa, 6618 fakturen erlazioa onartuz, guztira 37.006,32 eurokoa.
- 07/0218 erabakia, otsailaren 26koa, peoi lanak bideratzeko onartuen zerrenda onartuz.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), 2018ko Udal aurrekontuaren egoeraz galdetzen du. Alkateak, honen berri ematen du, aurki bere onarpenerako proposamena bideratzeko dela azalduz. Zentzu horretan, hurrengo astean hau aztertzeke bilera bat burutzea adosten da.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), plan paisajistikoaren garapenez galdetzen du. Alkateak, plana bideratu zuen enpresarekin harremanetan jarri behar dela adierazten du, hau zein puntutan dagoen aztertzeke. Zentzu horretan, plan horretan jasotako zenbait aurreikuspen (ibai ertzetako barandak, zerbitzuen mapa bat...) garatzeko komenigarritasuna azaltzen dute, dagokion aurrekontu saila-jasotzeke beharra aipatuz.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), karabana gunea indartu behar den galdetzen du. Alkateak adierazten du gai hau aztertu egin behar dela.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), San Martin/Santa Barbara kaleetako piboteei buruz galdetzen du. Alkateak adierazten du gai hau aztertzen ari dela ere, bilkurakideak beti itxita egotearen aldeko irizpena adieraziz, dendak eta transportistak irekitzeke aukerarekin.
- Bilkurakideak, herri informaziorako panelak kokatzeko aukeraz hitz egiten dute.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), udalean peoi lanak burutzeko langile bat izaera finkoarekin sortu eta kontratatzeke beharra dagoen aztertu oten den galdetzen du. Alkateak, adierazten du, gai hori aztertu beharko dela, gaur egun dagoen lan zamak agian horren beharra eskatzen duelako.
- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak, euskerako aurrekontua zein izango den galdetzen du, zenbait ekintza burutzeko agian diru aurreikuspen gehiago beharko dela adieraziz. Alkateak adierazten du aurrekontuaren zirriborroan aztertuko dela.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) hiltegi mankomunatuan egindako bileraren berri ematen du. Zentzu horretan, idazkari postua sortzea onartu zela adierazten da (bitarteko bezala Tolosako idazkaria egonez). Bestalde, 2018ko aurrekontua eta tarifak onartu ziren. Adierazten du, egoera ekonomikoa ona dela aipatu zelarik, hiltegia ez dela autofinantziatzen. Bilkurakideak gai aztabaidatzen dute, adierazitako postua sortzeke proposamenarekiko adostasuna adieraziz.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2018.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO